

PRIBATUTASUN POLITIKA

1. Arduraduna
2. Tratamenduaren helburua
3. Legezkotasuna
4. Lagapenak edo Transferentziak
5. Erabiltzaileen eskubideak eta erreklamazio prozedurak
6. Jatorria
7. Segurtasun neurriak

1. Arduraduna

MUGARIK GABE GGKEK, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan izena emanda duenak, B/820/88 zenbakiarekin, helbide soziala Vicente Garamendi 5 Behea, 48006 Bilbo duenak, erabiltzaileak borondatez emandako datu pertsonalen babesa bermatzen du, erabiltzailea MUGARIK GABE GGKErekin komunikatzen denean, datuak jasotzeko inprimakiak betetzen dituzenean, kontratu harremana gauzatu edo datuen komunikazio edo datuetara sarrera eskatzen duen beste edozein zerbitzu erabiltzean.

MUGARIK GABE GGKEK, datua horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduak, 2016ko apirilaren 27koa (RGPD), datu pertsonalen tratamendua eta zirkulazio askea direla-eta, pertsona fisikoak babesteari buruzkoak eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak eta indarrean dagoen datuen babeserako araudiak diotenaren arabera tratatzen ditu.

MUGARIK GABE GGKEK politika hau publiko egiten du erantzukizun proaktiboko hatsarrearekin eta informazioaren gardentasunarekin betetzeko, eta honen bitartez interesdunaren zalantzarik gabeko adostasuna nabarmentzeko.

2. Tratamenduaren helburua

MUGARIK GABE GGKEK jasotako eta tratatutako datu pertsonalak, webgune honen bidez azoka, kontratu, jardunaldi, newsletter, zozketa edo bestelako bidez jasotakoak, tratamendu helburuaren beharren arabera egokiak, dagokienak eta mugatuak izango dira.

Helburuak, azalpen gisa eta sakondu gabe, eskaera zehatzei kasu egitea, kontsultei, izen ematei eta newsletter bidalketei erantzutea, jardunaldietako izen emateak eta dokumentazio eta zerbitzuekin lotutako informazio bidalketak dira.

Izaera pertsonala duten datuen jasotzeari edo tratamenduari dagokionez, helburua ere bada dagokion kasuan ematen den harremana ezartzea eta

mantentzea, harremanaren izaerarekin eta ezaugarriekin bat etorrira, bazkideekin, kolaboratzaileekin, boluntarioekin, kidetutakoekin, erabiltzaileekin, eta abarrekin ezartzen dena.

Formakuntzarako, tratamendu helburua ekintza horren kudeaketa da, izen ematea, arreta eta ondorengo informazioa, jarraipena, etab.

Kasu horietan guztietan, datu pertsonalak interesduna identifikatzeko mantenduko dira, soilik datuen tratamendurako helburua betetzeko behar besteko denboran.

Kontserbazio epe horiek luzatu egingo dira soilik helburua ikerketa zientifikoak, historikoak edo estatistikoak direnean.

3. Legezketasuna

MUGARIK GABE GGKEren datu tratamendurako oinarri juridikoa edo legezketasuna tratamendu ekintzen arabera da, datu pertsonalen titular motaren arabera eta tratamenduaren helburuen arabera.

Edozein kasutan, interesduna emandako datuen egiazketasunaren erantzule izango da, MUGARIK GABE GGKEk edozein datu faltsu edo legez kontrako baztertzeko eskubidea bere gain hartuta, Zuzenbidean dagozkion gainontzeko ekintzez bestera.

MUGARIK GABE GGKEk ohartarazten du, eraturako ordezkari legalik egon ezean, interesdun inork ezingo duela beste pertsona baten identitatea erabili eta haren datuak jakinarazi, beraz, momentu oro kontuan izan beharko du MUGARIK GABE GGKEri bere identitatearen datu pertsonalak eman behar dizkiola eta egokiak, dagozkionak, eguneratuak, zehatzak eta egiazkoak izan behar direla.

Xede horretarako, interesduna izango da erantzule bakarra hirugarrengei edo MUGARIK GABE GGKEri eragindako edozein kalteren aurrean, zuzena edo zeharkakoa, beste pertsona baten datu pertsonalak erabiltzeagatik edo bere datu pertsonalak erabiltzeagatik horiek faltsuak, okerrak, ez eguneratuak, ezegokiak edo desagokiak direnean. Era berean, hirugarrengei baten datu pertsonalak ematen dituenak, haren aurrean erantzungo du indarrean dagoen arautegiak ezarritako informazio derrigortasunaren aurrean, izaera pertsonaleko datuak interesdunak berak jasoak izan ez direnean, edota berau informatu ez izanaren ondorioen aurrean.

4. Lagapenak edo Transferentziak

Lagapenak: MUGARIK GABE GGKEk hirugarrengei datuak uzten dizkie soilik kontratuaren edo zerbitzuaren betebeharrei erantzuteko, hornitzaile edo erakunde publiko edo pribatuekin.

Titularrak lagapen horiek onartzen ditu eta, bere eskubideak gauzatuta, horien gaineko informazioa jaso dezake.

Nazioarteko Transferentziak: MUGARIK GABE GGKEk jakinarazten du, bere ekintzen garapenean Europako Esparru Ekonomikotik kanpoko helbidea duten hornitzaileen zerbitzuak erabiltzen dituela (tratamenduaren arduradun gisa) eta datuak jakinarazten dizkiela, nazioarteko datu transferentzia gauzatuta.

MUGARIK GABE GGKEk erabiltzen dituen zerbitzuak eta horien pribatutasun politika euren webgunean kontsulta daitekeenak hauek dira: Google, Microsoft, DropBox, Facebook, Twitter eta Mailchimp.

Kasu guztietan pribatutasun akordioa sinatuta daukate www.privacyshield.gov

5. Erabiltzaileen eskubideak eta erreklamazio prozedurak

Erabiltzaileak momentu oro balia ditzake bere datu pertsonalen gainean aitortutako eskubideak, bai eta aurretik aipatutako erabilerarako baimena ezeztatzea ere, eskaera edo baliatu nahi den eskubidea idatzizko jakinarazpen baten bitartez MUGARIK GABE GGKEren helbidera edo bilbao@mugarikgabe.org helbide elektronikora bidalita, bi kasuetan NANaren kopia bat edo identifikatzeko antzeko dokumenturen batena erantsita, aitortutako eskubideak gauzatzeko, honakoak direnak:

- Sarbidea. MUGARIK GABE GGKE bere datuak tratatzen ari den eskatzea.
- Zuzenketa. Datuak okerrak badira horien zuzenketa eskatzea.
- Ezabatzea. Legalki ezarritako kasuetan, datuak ezabatzea eskatzea.
- Aurkakotasuna. Datuak tratatzeari uztea, arrazoi justifikatuengatik egiten direnak salbu.
- Tratamendua mugatzea, erreklamazioak egiteko edo defentsarako soilik mantenduko dira.
- Datuen portabilitate eskubidea: datuak beste hornitzaile batek tratatzea nahi izatekotan, MUGARIK GABE GGKEk, betiere posible bada, arduradun berriari datuak portabilizatzea erraztuko du.

Eskubide horien baliatzearen inguruko informazio gehiagorako Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan kontsulta daiteke.

Zure datu pertsonalen tratamenduak araudia urratzen duela uste baduzu erreklamazio bat aurkez dezakezu:

- o MUGARIK GABE GGKEko arduradunei; edo
- o [Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren](#) aurrean, euren posta helbidearen bidez: Jorge Juan kalea, 6, P.K. 28001, Madril (Espainia).

6. Jatorria.

MUGARIK GABE GGKEk tratatzen dituen datuak, kasu bakoitzean, dagokion galdetegiaren arabera eta, orokorrean, interesdunak berak emandakoak dira.

Zuzenean interesdunarengandik jasoak ez diren kasuetan, MUGARIK GABE GGKEk titularrari jakinaraziko dio RGPDn jasotako terminoetan, funtsean, tratatutako datuen iturria eta kategoria.

7. Segurtasun neurriak

Erabiltzaileek emandako edo eurengandik jasotako informazio pertsonala, horren erantzule MUGARI GABE GGKE izanda, fitxategietan egituratzen da, automatizatuak edo ez, eta MUGARIK GABE GGKEk indarrean dagoen araudiaren arabera tratamendu ekintzen erregistroa egiten du.

Datuen tratamendu bakoitzean MUGARIK GABE GGKEk neurri teknikoak eta antolamendu-neurri egokiak ezartzen ditu tratamendu batean txertatutako eta horien segurtasun egokia bermatzeko ezinbesteko diren datuen isilpekotasuna, osotasuna, erabilgarritasuna eta erresilientzia, baita baimen gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren kontrako babesa eta galtzea, ezabatzea edo istripuzko kaltearen kontrakoa ere.